

JARRAIBIDEEN II. ERANSKINA

GENEROAREN IKUSPUNTUTIK GARRANTZIRIK GABEA DELA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZARAKO PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.– Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izendapena adierazi:

Patataren ekoizpen integratuari buruzko Arau Tekniko berariazkoa onartzen duen agindua¹.

2.– Araua sustatzen duen saila edo zuzendaritza adierazi:

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza.

3.- Hala badagokio, proiektu edo proposamenarekin zerikusia duten beste arau eta plan batzuk eta abar aipatu.

- 31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzkoa.
- Agindua, 2002ko otsailaren 5koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordearen osaera eta jarduna zehazten dituena.

4.– Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak azaldu:

Landare-jatorriko produktuen ekoizpen integratuko arau tekniko orokorra -Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aplikatzeko- osatzea, kontsumorako eta ereiteko patata landatzeari buruzko guztiari dagokionez. Horretarako, 21 kapitulutuan eta eranskinean, arauak honako hauek arautzen ditu:

- I. kapitulua. Aldez aurretiko baldintzak.
- II: kapitulua. Instalazioak, tresnak eta langileak.
- kapitulua. Lurzorua, lur-sailak prestatzea eta lurra lantzea.
- IV: kapitulua. Landare ekaia.
- V. kapitulua. Ereitea – landatzea.
- VI: kapitulua. Polinizazioa.
- VII: kapitulua. Ongarritzea, fertirrigazioa eta medeatzea.
- VIII: kapitulua. Ureztatzea.
- IX: kapitulua. Praktika kulturalak.
- X. kapitulua. Fitosanitarioen erabilera laborantzan.
- XI. kapitulua. Patatak biltzea eta gordetzea.
- XII. kapitulua. Hondakinak kudeatzea.
- XIII. kapitulua. Ustiapen-koadernoak.
- XIV. kapitulua. Eraldaketa zentroa.
- XV: kapitulua. Produktu Fitosanitarioen Hondakinen Kontrola.
- XVI. kapitulua. Ingurumen-babesa.
- XVII. kapitulua. Identifikazioa eta Trazabilitatea.
- XVIII: kapitulua. Prestakuntza.
- XIX. kapitulua. Bezeroen kexak.
- XX: kapitulua. Kalitate-sistema.

¹ Adibide hau egiteko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2010eko irailean egindako kontsulta hartu da erreferentziatzat.

- XXI: kapitulua. Azterketa metodoak

I. eranskina: Patata-laborantzan, izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko neurriak eta horietan esku hartzeko irizpideak.

GENEROAREN IKUSPUNTUTIK GARRANTZIRIK GABEA DELA JUSTIFIKATZEA

5.- Adierazi zergatik uste den arau-proiektua genero-ikuspegitik garrantzirik gabea dela:

Patata ekoitzi, egin edo manipulatzeari buruzko alderdi teknikoak arautzera mugatzen da araua, eta ez du gaitasunik emakumeek eta gizonak eremu horretan duten egoera desberdinean eragiteko.

2010eko irailaren 30a.

**Txostena egin duenaren
sinadura:**

**Proiektuaren ardura duen zuzendariaren
sinadura:**